

Gure Zirkuak ireki du 2025eko txotx denboraldia Sagardo Berriaren Egunean

Por **Redactor** - 15 enero, 2025



«Gure Sagardo Berria» oihu eginda, Gure Zirkuko Iker Galartza, Joseba Usabiaga eta Lur Aranburuk txotx bolada ireki dute Astigarragako Alorrenea sagardotegian, XXXII. Sagardo Berriaren Egunaren ospakizunean. Aurretik, Gezamina barietateko sagarrondo berri bat landatu dute Kontxa Etxeberria plazan.



[Millones con IA](#)

Millonaria de Madrid: ¡La IA multiplica 100 euros 20 veces al día!

Ekitaldia eguerdiko 12:00etan hasi da Erribera Kulturgunean prentsaurrekoarekin eta bertan izan dira **Xabier Urdangarin** (Astigarragako alkatea), **Azahara**

Dominguez (Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako diputatua), **Xabier Arruti** (Lurralde Oreaka Berdearen diputatua), **Clara Navas** (Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Ostalaritzako zuzendaria), **Nora Beltran de Otalora** (Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko zuzendaria), **Unai Agirre** (Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko zuzendaria), **Jokin Mariotekurrena** (Alderreko sagardotegiko ordezkaria) eta **Gure**

Uso de cookies

Este sitio web utiliza cookies para que usted tenga la mejor experiencia de usuario. Si continúa navegando está dando su consentimiento para la aceptación de las mencionadas cookies y la aceptación de nuestra [política de cookies](#).

ACEPTAR

probatzeko momentua dela esan du, eta Euskal Herriko zein kanpoko bisitariei sagardotegietara etortzeko gonbita luzatu die, beti ere errespetuz eta gehiegikeririk gabe. Bestalde, **Azahara Dominguez** Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako diputatuak adierazi duenez, txotx denboraldia Gipuzkoarren bereizgarri bat izateaz gain, gure nortasunaren adierazgarri ere bada: «Txotxaren esperientziak, gipuzkoarrak nolakoak garen erakusteaz gain, tradiziorik errotuenak, gure kultura eta bizitza ulertzeko modua islatzen ditu. Hori guztia ekoizleek egunez egun egiten duten lanari esker da», esan du.

Bestalde, **Xabier Arruti** diputatuak Euskal Sagardoak eman dituen urratsak nabarmendu ditu, eta sektoreko proiektua izatetik haratago doan Euskal Herri osoko proiektuan bihurtzen ari dela azpimarratu du.

Era berean, **Clara Navasek** sagardoaren mundua tradizio bat baino gehiago dela gogoratu du: «Erritual bat da, eta sagardoa eta sagardotegiak esperientzia turistikoen funtsezko zati bat dira», gehitu du.

Nora Beltran de Otalorak hitza hartu duenean nabarmendu du nahiz eta aurtengo uzta ez dela batere erraza izan, emaitza ezin hobea izan dela, kalitate handikoa.

Uztari dagokionez, **Unai Agirrek** azaldu du aurrekoa baino txikiagoa izan dela, baina espero zen zerbait zela, 2023koa uzta handia izan baitzen. Zehazki, %60 sagar gutxiago ekoiztu dira Euskal Herriko sagastietan, lurraldeen eta zonaldeen arteko ezberdintasunak gorabehera. Hala ere, sagarrak izaera handiagoa izan du. Beraz, Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako zuzendariak aipatu duen bezala, aurten sagardotegietan dastatu ahal izango diren sagardoak, orokorrean, kolore eta gorputz gehiagokoak izango dira, eta oso bilakaera ona izango dute luzera. Alkoholari dagokionez, 2023ko uztarekin alderatuta ez dago alde handirik.

Azpimarratu behar da 2024an Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenaren egiaztapenarekin 1.300.000 litro sagardo ekoiztu direla, 46 sagardotegitan: bat Araban, hiru Bizkaian eta berrogeita bi Gipuzkoan. Denera, Euskal Sagardorako sagarra egiten duten sagargileak 250

dira eta guztira ia 500 hektarea erabiltzen dira horretarako. 2024an bi milioi kilo pasa sagar bildu dira Euskal Sagardorako.

Gaur goizeko prentsurrekoan, Alorrenea sagardotegian denboraldiari hasiera emango zion ~~kupela birugarrena izango zela azaldu du **Jokin Mariakurrenak**. Kupel berretako~~

Uso de cookies

Este sitio web utiliza cookies para que usted tenga la mejor experiencia de usuario. Si continúa navegando está dando su consentimiento para la aceptación de las mencionadas cookies y la aceptación de nuestra **política de cookies**.

ACEPTAR

~~esanda hasieraren zaro, eta aurreko garrantzitsuenen/rikizatsuenen eta garrantzitsuenen~~
arteko oreka dauka.

Gure Zirkuko Iker Galartzak oso hunkituta zegoela adierazi du eta zirkuaren mundua sagardogileenarekin alderatu du: «Guk jendeak ondo pasatzeko lana egin behar dugu, eta zuek ere bai. Jendea gustora egoten da gurera etortzen denean, zazpi urteko umeari gustatzen zaio eta 80 urtekoak zorutzen ateratzen dira gure etxetik», esan du.

Beraientzat lehen txotxa egitea ohore bat dela azpimarratu eta gero, **Joseba Usabiagak** honako hau adierazi du: «Show bat eskaintzeaz gain, Gure Zirkuk garrantzi handia ematen dio beste balore batzuk transmititzeari: elkartasuna, familia, laguntasuna... Eta nik uste dut sagardogileek hori ere primeran egiten duzuela».

Azkenik, **Lur Aranburuk** Sagardo Berriaren Egunean parte hartzea plazer bat dela aitortu du, eta jendea denboraldi berri honetaz disfrutatzen gonbidatu nahi izan du, elkar errespetatuz eta ondo pasaz.

Bukatzeko, **Ana Goitiak** txinparta jarri dio prentsurrekoari monologo bat eskainita.

Prentsurrekoaren ostean, Gure Zirkuko ordezkariak **Gezamina barietateko sagarrondo** berri bat landatu dute Astigarragako Kontxa Etxeberria plazan. Ekitaldi sinboliko horrekin naturaren dinamikotasuna eta berritzeko ahalmena azaldu nahi dira.

Sagardotegira sartu aurretik omenaldi txiki bat egin zaie **Ramon Izeta** eta **Ximon Gokioetxea** txalapartariei, azken hau iaz hil zena, 30 urte baino gehiagoko ibilbidea egiteagatik. Ondoren, Sagardo Berriaren Eguneko unerik garrantzitsuen iritsi da: **Alorrenea sagardotegian** «Gure Sagardo Berria» esanda, Gure Zirkuk lehen kupela ireki du, eta horrekin batera, 2025eko sagardo denboraldi berriari ekin zaio.